




Esperimentazioak nola egin ?



1

Orri handi batzuk ezarriko dira ikasgelako hormetan itsatsirik.

Ontzi garden batean ura emanen da.

Ontzi hori paperaren kontra bermatuz atxikiko da.

Uraren nibelari artoski begiratuko zaio eta ontziaren bi bazterretan uraren nibelaren markak bi puntuz markatuko dira.

Lerro bat marratuko da bi puntuen artean.

2

Beste orrietan horrelako neurketak eta marrazkiak eginen dira ontzia eskuin edo ezker (doi bat) makurtuz.

3

Azkenean egiaztatu beharko dugu marratu ditugun lerroak horizontalak direla.

Hortako, nibel urbegiduna baliatuko dugu.

Lerro guztiak horizontalak badira, erran dezakegu uraren gainazala horizontala dela kasu guzietan.